

**\_\_\_/2017 FORU DEKRETUA, \_\_\_\_\_aren  
\_\_\_\_\_(e)koa, euskararen erabilera  
arautzen duena Nafarroako administrazio  
publikoetan, beren erakunde publikoetan  
eta menpeko dituzten zuzenbide  
publikoko entitateetan.**

ZIOEN AZALPENA

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 2.1. artikuluan ezartzen da gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla eta, horren ondorioz, herritar guztiek dutela jakin eta erabiltzeko eskubidea. 2.2 artikuluan gaztelaniaren ofizialtasuna ezartzen du Nafarroa osoan; euskararena, aldiz, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 9. artikuluan ezarritakoa izanen da.

Euskarari buruzko Foru Lege horrek hiru hizkuntza eremu ezartzen ditu Nafarroan eta foru dekretu honek eremu horiek hartzen ditu bere baitan. Eremu euskalduna, zeinetan euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak baitira eta herritarrek eskubidea baitute administrazio publikoekiko harremanetan bi hizkuntzak erabiltzeko eta haien aukeratutako hizkuntzan hartuak izateko. Eremu mistoa, zeinetan herritarrek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea baitute Nafarroako administrazio publikoen aurrean aritzerakoan. Eta eremu ez-euskalduna, zeinetan herritarrei onartzen baitzaie Nafarroako administrazio publikoen aurrean euskara erabiltzeko eskubidea. Hori horrela, Euskarari buruzko Foru Legeak onartzen du herritarrek eskubidea dutela hiru eremu horietan Nafarroako berezko hizkuntzak administrazio publikoekiko harremanetan erabiltzeko, foru lege horretan berean ezarritako terminoetan. Halaber, administrazio publiko horiek premiatzen ditu eremu bakoitzean neurri desberdinak hartzera, eskubide hori modu eta maila desberdinetan gauzatzeko. Hala ere, kontuan izan behar da, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea parte batean aldatu zuen otsailaren 24ko 4/2015 Foru Legearen hitzaurrean onartzen dela ez dagoela inolako arrazoirik herritarren hizkuntza eskubide batzuk desberdinak izateko eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean, kontuan izan behar baita hizkuntza-ofizialtasunaren arubidea berbera dela aipatutako bi eremu horietan.

Bestalde, administrazio prozedura erkidean indarra duen araudiak herritarrei eskubidea onartzen die administrazio publikoekiko harremanetan hizkuntza

**DECRETO FORAL \_\_\_/2017, de \_\_\_ de  
\_\_\_\_\_, por el que se regula el uso del  
euskera en las administraciones  
públicas de Navarra, sus organismos  
públicos y entidades de derecho público  
dependientes.**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vasconce, en su artículo 2.1 establece que el castellano y el euskera son lenguas propias de Navarra y, en consecuencia, toda la ciudadanía tiene derecho a conocerlas y a usarlas. En el artículo 2.2 establece la oficialidad del castellano en toda Navarra y la del euskera en los términos establecidos en el artículo 9 de la Ley Orgánica 13/1982, de 10 de agosto, de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra.

Dicha Ley Foral del Vasconce establece tres zonas lingüísticas en Navarra, a cuyo ámbito se refiere este decreto foral. Una zona vascofona, en la que el euskera y castellano son lenguas oficiales y en la que la ciudadanía tiene derecho a usar ambas lenguas en sus relaciones con las administraciones públicas y a ser atendida en la lengua oficial que elija. Una zona denominada mixta, en la que la ciudadanía tiene derecho a usar tanto el euskera como el castellano para dirigirse a las administraciones públicas de Navarra. Y una zona denominada no vascofona, en la que se reconoce a la ciudadanía el derecho a dirigirse en euskera a las administraciones públicas de Navarra. Así pues, la Ley Foral del Vasconce reconoce en las tres zonas el derecho de la ciudadanía a usar las lenguas propias de Navarra en sus relaciones con las administraciones públicas, según los términos establecidos en la misma Ley Foral, e insta a estas a tomar diferentes medidas en cada zona para hacerlo efectivo, en modos y grados distintos. Ha de tenerse en cuenta, sin embargo, que, tal y como se reconoce en el preámbulo de la Ley Foral 4/2015, de 24 de febrero, de modificación parcial de la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del vasconce, no existe razón alguna para que determinados derechos lingüísticos de los ciudadanos y ciudadanas sean distintos en la zona mixta y en la no vascofona, habida cuenta de que el régimen de oficialidad lingüística es idéntico en ambas.

Por su parte, la normativa vigente en materia de procedimiento administrativo común, reconoce el derecho de la ciudadanía, en sus relaciones con las

ofizialaren izaera duten hizkuntzak erabiltzeko, eta, orobat, ezartzen du autonomia erkidego batean egoitza duten Estatuko Administrazio Orokorreko organoek esku hartzen duten prozedurak interesdunak aukeratutako hizkuntza ofizialean tramitatuko direla, haren hizkuntza eskubideen arabera. Era berean, Botere Judizialari buruzko Lege Organikoak gai hau bere aplikazio-esparruan arautzen du.

Zentzu berean, aipamen berezia egin behar zaio Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunari. Gutun hori 1992ko ekainaren 25ean onetsi zen, Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak konbentzio-izaera eman zion eta hamaika estatu kidek urte horretako azaroaren 5ean sinatu zuten, eta, horien artean, Espainiakoak, zeinak 2001eko apirilaren 9an berretsi baitzuen.

Bereziki kontuan hartu dira Europako Gutun horretan agintari administratiboen eta zerbitzu publikoen gainean 10. artikuluan bildutako konpromisoak. Era berean, kontuan hartu dira gutun horren betetze-mailaren ezarpena jarraitzeko prozesuan Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak 2005., 2008., 2012. eta 2016. urteetako aldizkako txostenetan emandako gomendioak. Gomendio horien artean bereziki aipatzekoak dira, batetik, 2005eko irailaren 21ean onetsitako gomendioen arteko 5. puntua – puntu horretan esaten da gutunaren III. zatia euskarari ematen dion babesa Nafarroako eremu mistoan modu egokian aplikatzeko aukera kontuan izan behar dutela agintariek–, eta, bestetik, 2016ko urtarrilaren 20an onetsitako gomendioen arteko 4. puntua –puntu horretan eskatzen da zerbitzu publikoetan hizkuntza koofizialen presentzia bermatzeko neurriak hartzen jarraitu behar dela, bereziki osasun zerbitzuetan–.

Nafarroako administrazio publikoetako euskararen erabilera martxoaren 21eko 70/1994 eta uztailaren 4ko 135/1994 foru dekretuen bidez arautu zen; azken honek aurrekoa indarrik gabe utzi eta ordeztu zuen. Geroago, abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuak arau hura indarrik gabe utzi eta ordeztu zuen. Foru dekretu honi administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean errekurtsioak jarri zizkieten eta, azkenean, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak baliogabetu zuen. Nafarroako administrazio publikoetako euskararen erabilera berriz arautu zen otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuaren bidez. Foru dekretu hau eta aurrekoa edukiz berdinak ziren eta honi ere errekurtsioak jarri zizkieten. Hartara, lau artikulua partzialki baliogabetu zituen Nafarroako

administraciones públicas, a utilizar las lenguas que tienen carácter de lengua oficial, y establece que los procedimientos en los que intervengan órganos de la Administración General del Estado con sede en una comunidad autónoma se tramitarán en la lengua oficial elegida por la persona interesada, conforme a sus derechos lingüísticos. A su vez, la Ley Orgánica del Poder Judicial regula esta materia en el ámbito de su aplicación.

En este mismo sentido, merece especial mención la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, aprobada el 25 de junio de 1992 con rango de convención por el Comité de Ministros del Consejo de Europa y firmada el 5 de noviembre del mismo año por once estados miembros, entre ellos el español, que la ratificó el 9 de abril de 2001.

De modo particular se toman en consideración los compromisos contenidos en el artículo 10 de dicha Carta Europea, relativo a las autoridades administrativas y servicios públicos. Asimismo, se atiende a las recomendaciones realizadas en los informes periódicos de 2005, 2008, 2012 y 2016 por el Comité de Ministros del Consejo de Europa en el proceso de seguimiento del cumplimiento del mencionado tratado. Entre esas recomendaciones, merecen especial consideración el punto 5 de las aprobadas el 21 de septiembre de 2005, en el que se realiza la indicación expresa para que las autoridades contemplen la posibilidad de aplicar una forma apropiada de la protección que brinda la Parte III de la Carta a la lengua vasca en la zona mixta de Navarra, así como el punto 4 de las recomendaciones aprobadas el 20 de enero de 2016, en el que se solicita continuar llevando a cabo medidas para garantizar la presencia de las lenguas cooficiales en los servicios públicos, especialmente en los servicios de salud.

El uso del euskera en las administraciones públicas de Navarra fue regulado mediante el Decreto Foral 70/1994, de 21 de marzo, y mediante el Decreto Foral 135/1994, de 4 de julio, que derogó y sustituyó al primero. Posteriormente, esa norma fue derogada y sustituida por el Decreto Foral 372/2000, de 11 de diciembre, que fue objeto de una serie de recursos ante la jurisdicción contencioso-administrativa y, finalmente, anulado por el Tribunal Superior de Justicia de Navarra. El uso del euskera en las administraciones públicas de Navarra se reguló nuevamente mediante el Decreto Foral 29/2003, de 10 de febrero, de idéntico contenido al anterior, e igualmente recurrido, del cual cuatro artículos fueron parcialmente anulados

Justizia Auzitegi Nagusiak eta artikulu horietako bi ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretuak indarrrik gabe utzi zituen.

Nafarroako Arartekoak, elebitasunaren eta hizkuntza eskubideen gaineko 2010eko txostenean, Nafarroako Gobernuari iradoki zion Euskarari buruzko Foru Legea betetzeko, 29/2003 Foru Dekretua ordezkatzeko erregelamendu orokorra prestatu eta onetsi behar zuela. Txostenean adierazten zen erregelamendu orokor horrek berriaz arautu behar zuela euskararen erabilera normala eremu mistoan, eremu horretan bizi baitira nafar gehienak eta horietako anitz euskal hiztunak dira.

Eremu euskaldunari dagokionez, Nafarroako Arartekoak, 2015eko abuztuaren 19ko txostenean, ohartarazi zuen komenigarria zela Euskarari buruzko Foru Legeko xedapenak ahalik eta lasterrena gauzatzea. Horren ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eremu euskalduneko herritarrei zuzendutako bere eskumeneko zerbitzu publikoak euskaraz ematea bermatu behar du, gaztelaniarekin parez pareko egoera batean, bi hizkuntzen koofizialtasunetik ondorioztatzen den logikak erakusten duen bezala. Ildo horretan, txosten horrek ohartarazten du progresibotasunak gaur egun ez lukeela irismen bera izanen, progresibotasun hori eremu euskaldunean euskara erabiltzeko eskubidea benetan gauzatzea muga dezakeen printzipio moduan hartuz, kontuan izan behar baita legea 1986an onetsi zela eta indarra hartu zuenetik hogeita hamar urte iragan direla.

Euskarari buruzko Foru Legearen hitzaurrean onartzen da hizkuntzak bizikidetzarako eta gizarteko kideen arteko ulermenerako baliagarriak direla. Balio horrek gaur egun ere indar osoa izaten segitzen du eta gaur egungo Nafarroak bi hizkuntzen koexistentzia eta herritar guztien hizkuntza eskubideen errespetua ditu gizarte kohesiorako ezinbesteko elementu.

Euskarari buruzko Foru Legeak hizkuntza fenomenoaren izaera dinamikoa onartzen du. Zentzu horretan, begien bistakoa da, lege hori onetsi zenetik, azken hiru hamarkadetan Nafarroan euskararen egoera soziala positiboki aldatu dela, eta euskararen ezagutza asko handitu dela, bereziki belaunaldi berrien artean. Era berean, euskarazko zerbitzu publikoen eskaera handitu da. Errealitate sozial berri hau onartu behar da eta, hori dela-eta, beharrezkoa da araudia berrikustea eta administrazioaren jarduketak errealitate horretara egokitzea, Euskarari buruzko Foru Legearen esparruaren barnean,

por el Tribunal Superior de Justicia de Navarra, y dos de ellos derogados por el Decreto Foral 55/2009, de 15 de junio.

El Defensor del Pueblo de Navarra, en su informe de 2010 sobre el bilingüismo y los derechos lingüísticos, sugirió al Gobierno de Navarra la elaboración y aprobación de un reglamento general de ejecución de la Ley Foral del Vascuence que sustituyera al Decreto Foral 29/2003. El informe afirmaba que esa reglamentación general debería regular específicamente el uso normal del euskera en la zona mixta, por ser dicha zona donde se centran el mayor número de habitantes de Navarra, siendo gran parte vascoparlantes.

En lo que respecta a la zona vascófona, el Defensor del Pueblo de Navarra, en informe de 19 de agosto de 2015, advirtió de la conveniencia de que las disposiciones de la Ley Foral del Vascuence sean una realidad cuanto antes, lo que conlleva que la Administración de la Comunidad Foral de Navarra garantice la prestación de los servicios públicos de su competencia dirigidos a la ciudadanía de la zona vascófona en euskera en una situación de paridad con el castellano, como es la lógica que se deriva de la cooficialidad entre ambas lenguas. En tal sentido, dicho informe advierte de que la progresividad a veces mencionada como principio que pueda limitar el ejercicio efectivo del derecho a relacionarse en euskera en la zona vascófona ya no tendría hoy el mismo alcance, puesto que se trata de una ley aprobada en 1986 y de cuya vigencia han transcurrido treinta años.

El valor de las lenguas para la convivencia y entendimiento entre las personas integrantes de las sociedades que reconoce la Ley Foral del Vascuence en su preámbulo mantiene hoy día toda su vigencia, y la Navarra actual tiene en la coexistencia de sus dos lenguas y en el respeto de los derechos lingüísticos de toda la ciudadanía un elemento fundamental para la cohesión social.

La Ley Foral del Vascuence reconoce la condición dinámica del fenómeno lingüístico. En este sentido, es evidente que en las tres últimas décadas, desde la aprobación de dicha ley, la situación social de la lengua vasca en Navarra ha evolucionado positivamente y el conocimiento del euskera, especialmente entre las nuevas generaciones, ha aumentado de forma considerable. De igual modo, se ha incrementado la demanda de servicios públicos en esta lengua. Esta nueva realidad social ha de ser reconocida y, por todo ello, se hace preciso revisar la normativa y adecuar las

Nafarroako herritarrei onartzen zaizkien hizkuntza eskubideak osorik berma daitezen. Eskubide horiek bermatzera bideratua egon behar du, halaber, Nafarroako Gobernuak arlo honetan egindako plangintzak.

Hori horrela, foru dekretu honen helburua da Nafarroako bi hizkuntza berezkoen, euskararen eta gaztelaniaren, existentzia onartu eta haren errealitateari erantzutea, Euskarari buruzko Foru Legean onartzen den moduan, eta Nafarroako eskualdekatze eta errealitate soziolinguistikoa ezarritako mailaketa kontuan hartuz egitea. Horrela, foru dekretu honek eremu euskaldunean modu eraginkorrean bermatu nahi ditu euskarak eremu horretan onartuta dituen ofizialtasunetik eratorritako eskubide guztiak eta, eremu misto deiturikoan, Euskarari buruzko Foru Legeak herritarrei hizkuntza aukeratzeko onartzen dien eskubidea. Era berean, foru dekretu honek jarduketa administratiboa egokitu nahi du eremu ez-euskalduneko herritarrek administrazio publikoen aurrean euskaraz aritzeko onartuta duten eskubideari erantzun positiboa emateko.

Euskarari buruzko Foru Legearen esparruaren barnean, foru dekretu honetan ekintza positibo eta proaktiboa gehitu da, Nafarroako berezko hizkuntzetako baten, euskararen, egoera minorizatua zuzentzeko eta administrazio publikoek eta sektore publiko instituzionaleko entitateek benetako eskaintza baten bitartez euskararen erabilera sustatzeko. Entitate horiek sektore publikokotzat hartu behar dira, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezartzen duenari jarraikiz. Hala, foru dekretu hau Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren 7. artikuluan jasotako printzipioei egokitzen zaie, zeinean adierazten baita eskualdeetako eta eremu urriko hiztunen eta gainerako herritarren arteko berdintasuna sustatu eta haien egoera bereziak kontuan izateko bideratutako hizkuntza horien aldeko neurri bereziak hartzeak ez dituela hedatuagoak diren hizkuntzetako hiztunak baztertuko.

Bestalde, foru dekretu honek nafar guztiak hartu behar dituzten zerbitzu administratiboan espezifikotasuna onartzen du, zerbitzu horien kokapena edozein izanik ere. Horregatik, Foru Komunitate osoan jarduten duten zerbitzuak zerbitzu

actuaciones administrativas a tal realidad con el objeto de, dentro del marco de la Ley Foral del Vascuence, garantizar de forma plena los derechos lingüísticos reconocidos a la ciudadanía de Navarra. A garantizar de forma plena dichos derechos ha de estar dirigida, asimismo, la planificación del Gobierno de Navarra en este ámbito.

Así pues, la finalidad de este decreto foral es responder a la realidad de la existencia de dos lenguas que son propias de Navarra, euskera y castellano, tal y como se reconoce en Ley Foral del Vascuence, y hacerlo teniendo en cuenta la gradación establecida por la zonificación y la realidad sociolingüística de Navarra. De este modo, el presente decreto foral pretende, en la zona vascófona, garantizar de forma efectiva todos los derechos derivados de la oficialidad que el euskera tiene reconocida en dicha zona, y, en la zona denominada mixta, garantizar a la ciudadanía el derecho a la elección de lengua reconocido por la Ley Foral del Vascuence. Asimismo, el decreto foral pretende adecuar la actuación administrativa para dar una respuesta positiva al derecho reconocido a la ciudadanía de la zona denominada no vascófona de dirigirse en euskera a las administraciones públicas.

Dentro del ámbito de la Ley Foral del Vascuence, este decreto foral incorpora una acción positiva y proactiva dirigida a corregir la situación minorizada de una de las lenguas propias de Navarra, el euskera, promoviendo el uso de este idioma mediante una oferta real por parte de las administraciones públicas, organismos públicos y entidades de derecho público, en la medida en que estas entidades son también parte del sector público, tal y como establece la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. A este respecto, el presente decreto foral se ajusta a los principios que la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias recoge en su artículo 7, donde se indica que la adopción de medidas especiales en favor de las lenguas regionales o minoritarias, destinadas a promover una igualdad entre las personas que hablan dichas lenguas y el resto de la población y orientadas a tener en cuenta sus situaciones peculiares, no se considerará un acto de discriminación para con las personas que hablan las lenguas más extendidas.

Este decreto foral reconoce la especificidad de los servicios administrativos que, independientemente de su ubicación, han de atender al conjunto de la población de Navarra. Por ello, los servicios que tengan como ámbito de actuación toda la



zentralizat hartuko dira eta haiei ezarriko zaien erregulazio linguistikoa ez da izanen zerbitzu horiek kokatuta dauden hizkuntza eremuaren arabera, baizik eta duten eginkizunaren arabera, zeina baita Nafarroako herritar guztiei arreta egitea.

Azkenik, foru dekretu honen gaztelaniazko bertsioan "euskera" forma erabili da, "vascuence"ren baliokidea baita eta jaso baitago Espainiaren Errege Akademiaren Hiztegiaren. "Euskera" izena gizartean asko erabiltzen da, eta zabaldua dago, halaber, hezkuntzako testuetan eta Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuneko europar txostenetan. Edonola ere, "vascuence" hitza erabili da gaztelaniazko testuan, Euskarari buruzko Foru Legea aipatzean.

Ikusirik Nafarroako Kontseiluak 2017ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(e)an emandako irizpena eta Euskararen Nafar Kontseiluaren aldeko txostena.

Horrenbestez, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hamazazpiko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(e)an egindako bilkuran harturiko Erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

## I. TITULUA

### Xedapen orokorrak

#### 1. artikulua *Xedea eta esparru subjektiboa.*

1. Foru dekretu honek xede du garatzea Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen I. titulua, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen euskararen erabilera normal eta ofizialari buruzkoa.

2. Foru dekretu hau aplikatzekoa izanen zaie Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, Nafarroako toki entitateei eta administrazio publiko horiekin lotura duten edo beraien menpeko diren erakunde publiko eta zuzenbide publikoko entitateei.

#### 2. artikulua *Definizioak.*

Foru dekretu honen ondorioetarako, honako definizioak hartuko dira aintzat:

Comunidad Foral se considerarán servicios centrales, y la regulación lingüística que se les aplique no vendrá determinada por la zona en la que se radiquen, sino por el hecho de atender al conjunto de la población de Navarra, independientemente de su ubicación.

Finalmente, este decreto foral utiliza la voz euskera, expresión castellana equivalente al vascuence, que está recogida en el Diccionario de la Real Academia de la Lengua Española. La extensión del uso social de la expresión euskera es notoria y también se ha extendido en textos educativos e informes europeos relativos a la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias. En todo caso, se mantiene el uso de la palabra vascuence en la denominación de la Ley Foral del Vascuence.

De acuerdo con el dictamen del Consejo de Navarra emitido en su sesión de \_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2017 y con el informe positivo del Consejo Navarro del Euskera.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Relaciones Ciudadanas e Institucionales, y de conformidad con el Acuerdo adoptado por el Gobierno de Navarra en sesión celebrada el día \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de dos mil diecisiete,

DECRETO:

## TÍTULO I

### Disposiciones generales

#### Artículo 1. *Objeto y ámbito subjetivo.*

1. El presente decreto foral tiene por objeto desarrollar el Título I de la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vascuence, referido a la regulación del uso normal y oficial del euskera por las administraciones públicas de la Comunidad Foral de Navarra.

2. Este decreto foral será de aplicación a la Administración de la Comunidad Foral de Navarra, a las entidades Locales de Navarra y a los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes de dichas administraciones públicas.

#### Artículo 2. *Definiciones.*

A efectos de este decreto foral, se entiende por:

a) Idazketa elebiduna: euskaraz eta gaztelaniaz egindakoa.

b) Zerbitzu zentralak: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuetatik, herritar guztiendako arreta ematen dutenak, non kokatutarik dauden kontuan hartu gabe.

c) Ele biko lanpostua: lanpostu honetan sartzeko edo lanpostu hau betetzeko nahitaezkoa izanen da euskara ezagutzea, behar den neurrian.

d) Ele biko zirkuitua: zirkuitu administratibo bat aukera ematen duena zerbitzuak eman edo espedienteak tramitatzeko Nafarroako hizkuntza bietako edozeinetan.

### 3. artikulua *Funtsezko helburuak.*

1. Foru dekretu honen funtsezko helburuak honako hauek dira:

a) Eremu euskaldunean, ahalbidetzea bi hizkuntza ofizialeko edozein erabil daitezten lan-hizkuntza moduan Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan, bai eta herritarrei zerbitzua emateko ere.

b) Eremu mistoan, gauzagarri egitea herritarrek duten eskubidea euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzentzeko Nafarroako administrazio publikoengana, beren erakunde publikoengana eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateengana, bai eta beharrezkoak diren tresnak zehaztea ere ahalbidetzeko euskara eta gaztelania erabil daitezten herritarrei zerbitzua emateko; betiere, eremu horretako udalerrien errealitate soziolinguistikoarekin bat.

c) Eremu ez-euskaldunean, gauzagarri egitea herritarrek duten eskubidea euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzentzeko Nafarroako administrazio publikoengana, beren erakunde publikoengana eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateengana, bai eta hori lortzeko tresnak zehaztea ere, eremuaren ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu zentraletan, funtsezko helburua da euskararen erabilera ahalbidetzea herritarrei zerbitzua emateko.

a) Redacción bilingüe: la realizada en euskera y castellano.

b) Servicios centrales: aquellos servicios de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra que, independientemente de su ubicación, atienden al conjunto de toda la población navarra.

c) Puesto bilingüe: aquel para cuyo ingreso o provisión es preceptivo, en la medida correspondiente, el conocimiento del euskera.

d) Circuito bilingüe: aquel circuito administrativo que posibilita la prestación de los servicios o tramitación de los expedientes en cualquiera de las dos lenguas propias de Navarra.

### Artículo 3. *Objetivos esenciales.*

1. Son objetivos esenciales del presente decreto foral:

a) En la zona vascofona, posibilitar el empleo indistinto de cualquiera de las dos lenguas oficiales como lenguas de trabajo de las administraciones públicas de Navarra, sus organismos públicos y entidades de derecho público dependientes y como lenguas de servicio a la ciudadanía.

b) En la zona mixta, posibilitar el derecho de la ciudadanía a usar tanto el euskera como el castellano para dirigirse a las administraciones públicas de Navarra, sus organismos públicos y entidades de derecho público dependientes y definir los instrumentos que hagan posible el empleo del euskera como lengua de servicio a la ciudadanía, acorde a la realidad sociolingüística de los municipios que la integran.

c) En la zona no vascofona posibilitar el derecho de la ciudadanía a dirigirse en euskera a las administraciones públicas de Navarra, sus organismos públicos y entidades de derecho público dependientes y definir los instrumentos para hacerlo efectivo, acorde con las características sociolingüísticas de la zona.

2. En los servicios centrales de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra, el objetivo esencial es posibilitar el empleo del euskera como lengua de servicio a la ciudadanía.

#### 4. artikulua *Hizkuntza eremuen mugaketa.*

Foru dekretu honetan aipatutako hizkuntza eremuen mugak Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5. artikuluan ezarritakoak dira.

#### 5. artikulua. *Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren aholkularitza eta koordinazioa.*

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoari dagozkio:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen artean koordinazio-organo moduan aritzea, haiei aholkua ematea eta haiekin elkarlanean aritzea Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikan eta plangintzan ezarritako ildo estrategikoak gauzatzeko.

b) Nafarroako toki entitateei aholku eta laguntza ematea foru dekretu honek xede duenean.

#### 6. artikulua *Hizkuntza plangintza.*

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuek eta beraiekin lotura duten edo beraien menpeko diren erakunde publiko eta zuzenbide publikoko entitateek behar diren planak prestatuko dituzte, foru dekretu honetako 3. artikuluan aurreikusitako helburuak erdiets daitezzen; plan horiek kontuan hartuko dute, betiere, genero ikuspuntua. Plan horietan atal hauek bilduko dira, gutxienez:

a) Euskararen egoeraren diagnostikoa: euskaraz dakiten langileak, barneko eta kanpoko komunikazioen eta eskura dauden baliabideen azterketa, herritarrei zuzendutako inprimakien eta dokumentazioaren inbentarioa, errotulazioa eta seinaleztapena.

b) Lanpostuen komunikazio-beharrak identifikatzea.

c) Behar diren helburuak lortzeko neurri egokiak, eta neurri horien lehenespina; betiere, herritarrei arreta zuzena ematen dieten unitate organikoak eta lanpostuak lehenetsiko dira.

d) Prestakuntza beharren ebaluazioa.

#### Artículo 4. *Delimitación de las zonas lingüísticas.*

Las zonas lingüísticas a las que se refiere el presente decreto foral se corresponden, en su delimitación, con las establecidas en el artículo 5 de la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vasculence.

#### Artículo 5. *Asesoramiento y coordinación del organismo autónomo Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera.*

Corresponde al organismo autónomo Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera:

a) Actuar como órgano coordinador entre los departamentos de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra, asesorándolos y colaborando con ellos para implantar las líneas estratégicas del Gobierno de Navarra en materia de política y planificación lingüística.

b) Asesorar y prestar colaboración a las entidades Locales de Navarra en la materia objeto de este decreto foral.

#### Artículo 6. *Planificación lingüística.*

1. Los departamentos de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y los organismos públicos y entidades de derecho público vinculadas o dependientes de aquellos, elaborarán sus respectivos planes para lograr los objetivos previstos en el artículo 3 de este decreto foral, teniendo en cuenta la perspectiva de género. Dichos planes contendrán al menos los siguientes contenidos:

a) Un diagnóstico de la situación del euskera: personal con conocimientos de euskera, análisis de las comunicaciones internas y externas y de recursos disponibles, inventario de formularios y documentación dirigida a la ciudadanía, rotulación y señalización.

b) Una identificación de las necesidades comunicativas de los puestos de trabajo.

c) Las medidas apropiadas para lograr los objetivos correspondientes, y una priorización de dichas medidas, atendiendo preferentemente a las unidades orgánicas y a los puestos de trabajo con atención directa a la ciudadanía.

d) Una evaluación de las necesidades de formación.

e) Itzulpen-beharren ebaluazioa.

e) Una evaluación de las necesidades de traducción.

f) Jarduketan egutegia finkatzea, helburuak lortzeko aurreikusitako epearen barnean.

f) Una calendarización de las actuaciones dentro del periodo previsto para alcanzar los objetivos.

g) Planean aurreikusitako jarduketan balorazio ekonomikoa.

g) Una valoración económica de las actuaciones previstas en el plan.

h) Ezarritako helburuen jarraipenerako bideak eta ebaluaziorako adierazleak.

h) Modos de seguimiento e indicadores de evaluación de los objetivos establecidos.

2. Eremu euskalduna bere osotasunean edo parte batean hartzen duten toki entitateek beren planak prestatuko dituzte, foru dekretu honetako 3.1.a) artikuluan aurreikusitako helburuak erdiets daitezten. Plan horietan zehaztuko da zein plazatan izanen den nahitaezkoa euskara jakitea.

2. Las entidades locales cuyo ámbito corresponda, en todo o en parte, a la zona vascofona elaborarán sus propios planes para lograr los objetivos previstos en el artículo 3.1.a) de este decreto foral. Dichos planes especificarán las plazas para las que sea preceptivo el conocimiento del euskera.

3. Eremu mistoko eta eremu ez-euskalduneko toki entitateek beren jarduketa-esparruaren barnean beren planak prestatuko dituzte, hurrenez hurren, foru dekretu honetako 3.1.b) eta c) artikuluan aurreikusitako helburuak erdiets ditzaten.

3. Las entidades locales de la zona mixta y de la zona no vascofona podrán elaborar sus propios planes dentro de su ámbito de actuación, para lograr los objetivos previstos en el artículo 3.1.b) y c), respectivamente, de este decreto foral.

4. Artikulu honetan aipatzen diren planak zernahi egoera soziolinguistikotara egokituko dira, eta haietan ezarritako helburuak bete ahala eguneratuz joanen dira.

4. Los planes a los que se refiere el presente artículo se adecuarán a las diferentes situaciones sociolingüísticas y se irán actualizando en la medida en que se vayan cumpliendo los objetivos en ellos establecidos.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, toki entitateek eta administrazio publiko horiekin lotura duten edo beraien menpeko diren erakunde publiko eta zuzenbide publikoko entitateek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, behar diren langileek euskararen ezagutzan eta erabileran gero eta gaitasun handiagoa izan dezaten, Euskarari buruzko Foru Legean, foru dekretu honetan eta aipatutako araudia garatuz onets daitezkeen bestelako arauetan ezarritakoa bete dadin.

5. La Administración de la Comunidad Foral de Navarra, las entidades locales y los organismos públicos y las entidades de derecho público vinculados o dependientes de esas administraciones públicas, impulsarán medidas para garantizar la progresiva capacitación del personal necesario en el conocimiento y uso del euskera, con el fin de hacer posible el cumplimiento de lo establecido en la Ley Foral del Vasconce, en este decreto foral y en la normativa que lo desarrolle.

## II. TITULUA

## TÍTULO II

**Euskararen erabilera Nafarroako administrazio publikoetan eta horiek herritarrekin dituzten harremanetan**

**Uso del euskera en las administraciones públicas de Navarra y en sus relaciones con la ciudadanía**

### I. KAPITULUA Hizkuntza eremuak

### CAPÍTULO I Zonas lingüísticas

#### 1. atala. Eremu euskalduna

#### Sección 1.ª Zona vascofona

**7. artikulua** *Barne-erabilera.*

**Artículo 7.** *Uso interno.*



1. Eremu euskaldunear dauden administrazio publikoetan, erakunde publikoetan eta zuzenbide publikoko entitateetan, administrazio jarduketak guztiak baliozkoak izanen dira eta eraginkortasun juridiko osoa izanen dute, erabilitako hizkuntza ofiziala edozein dela ere.

2. Eremu euskaldunear dauden administrazio publikoetan, erakunde publikoetan eta zuzenbide publikoko entitateetan, izaera orokorreko barne-komunikazioak ele biz eginen dira. Hizkuntza ofizial bakar batean ere egin daitezke, baldin eta interesdunek hala aukeratzen badute.

3. Eremu euskaldunear dauden toki administrazioetan, erakunde publikoetan eta zuzenbide publikoko entitateetan, ele biz eginen dira barne erabilerako inprimaki eta idazki ofizialak, bai eta izenburuak eta idazpuruak ere; nahi izanez gero, euskarri bereziak erabiltzen ahalko dira.

#### **8. artikulua** *Administrazio publikoen arteko harremanak.*

1. Eremu euskaldunear dauden administrazio publikoetan, erakunde publikoetan eta zuzenbide publikoko entitateetan, eremu bereko beste batzuetara edo euskara hizkuntza ofiziala den bestelako administrazio publikoetara igortzen diren idazki ofizialak eta komunikazioak ele biz eginen dira, aldean artean hizkuntza horietako batean bakarrik egiteko akordiorik izan ezean.

2. Eremu euskaldunear dauden toki entitateetako zerbitzu zentralera zuzendutako idazki ofizialak eta komunikazioak euskaraz soilik idatzita egon daitezke.

3. Aurreko idatz-zatietan sartu gabeko bestelako administrazio publikoetara zuzendutako idazki ofizialak eta komunikazioak ele biz eginen dira, oro har.

#### **9. artikulua** *Herritarrekiko harremanak.*

1. Eremu euskaldunear dauden administrazio publikoetan, erakunde publikoetan eta zuzenbide publikoko entitateetan, ele biz eginen dira eremu euskalduneko bereko pertsona fisiko edo juridikoei zuzentzen zaizkien jakinarazpenak eta komunikazioak, salbu eta interesdunek bi hizkuntza ofizialetako bat berariaz erabiltzea erabakitzen badute.

1. En las administraciones públicas, organismos públicos y entidades de derecho público radicadas en la zona vascófona, serán válidas y tendrán plena eficacia jurídica todas las actuaciones administrativas cualquiera que sea la lengua oficial empleada.

2. En las administraciones públicas, organismos públicos y entidades de derecho público radicadas en la zona vascófona, las comunicaciones internas de carácter general se harán de forma bilingüe. Podrán realizarse solo en una de las lenguas oficiales si así lo eligen las personas interesadas.

3. En las administraciones públicas, organismos públicos y entidades de derecho público radicadas en la zona vascófona, los impresos y escritos oficiales de uso interno así como los encabezamientos y membretes se realizarán de forma bilingüe; podrán utilizarse, para ello, soportes separados.

#### **Artículo 8.** *Relaciones entre administraciones públicas.*

1. En las administraciones públicas, organismos públicos y entidades de derecho público radicadas en la zona vascófona, los escritos oficiales y las comunicaciones que se dirijan a otras de la misma zona o a otras administraciones públicas sitas en territorios donde el euskera sea lengua oficial, se realizarán de forma bilingüe, salvo que haya un acuerdo entre las partes para hacerlo solamente en una lengua.

2. Los escritos oficiales y comunicaciones que las entidades locales radicadas en la zona vascófona dirijan a los servicios centrales de las administraciones públicas podrán estar redactados únicamente en euskera.

3. Los escritos oficiales y comunicaciones que se dirijan a otras administraciones públicas no incluidas en los apartados anteriores se realizarán, como norma general de forma bilingüe.

#### **Artículo 9.** *Relaciones con la ciudadanía.*

1. En las administraciones públicas, organismos públicos y entidades de derecho público radicadas en la zona vascófona, las notificaciones y comunicaciones que se dirijan a personas físicas o jurídicas de la propia zona vascófona se harán de forma bilingüe, salvo que las personas interesadas soliciten expresamente la utilización de una sola de las dos lenguas oficiales.

2. Eremu euskaldunaren barnean ondorioak izanen dituzten herritarren erabilerarako inprimakiak eta idazki ofizialak ele biz idatziko dira. Nahi izanez gero, euskarri bereziak erabil daitezke.

